



EDIKTUA

ENEKA MAIZ ULAIARREK, ETXARRI ARANAZko ALKATE UDALBURUA
NAIZENEZ,

JAKINARAZTEN DUT:

Udal honek ondoko zergen erreziboak kobratzera pasatuko dituela:

* ZIRKULAZIO ZERGA 2018

Ordaintzeko borondatezko epea aurtengo APIRILAREN 12AN bukatuko da. Aipatu epe hori pasata, ordainagiriak Agentzi Exekutibora bidaliko direla, kobratzea premiamendu-bidetik burutzeko, Tributuen Foru Lege Orokorraren 117. artikuluan ezartzen diren errekaruekin.

Ordainketak helbideratuak dituztenei borondatezko epearen azkeneko egunean, bere kontuetan kargatuko zaie, eta gainerakoek Etxarri Aranazko banketxe batean ordaindu beharko dute.

Helbideraketa berriak edo aldaketak eskatzeko azkeneko eguna apirilaren 5a izango da.

Etxarri Aranatz, 2018ko otsailaren 26a.

ALKATETZA
Eneka Maiz Uliar

